2026/2027 ikasturteko bigarren lauhilekoan (otsaila-ekaina) 5 orduko liberazioak edo barnetegiak egiteko deialdia eta euskara ikasteko modulua aldatzeko deialdia.

1. Ikastaroen eskaintza

MODULUA (ikastaro mota*)	OHARRAK
Barnetegia	**Guztiek eska dezakete**, bai ikasturte honetan lehen aldiz otsailean hasi nahi dutenek, bai urrian hasitakoek.
Egunean **5 orduko** ikastaroa	**Urrian hasi zirenek** otsailetik aurrera modulu hauetan jarraitu nahi badute, **eskaera egin behar dute berriro derrigorrean**.
Egunean **2 orduko** ikastaroa	Urritik 5 orduko ikastaroetan edo barnetegietan daudenek soilik egin dezakete egunean 2 orduko eskaera hau.

*Ikastaroen gutxi gorabeherako egutegia eta ordutegia Eranskinean jasota daude.

2. Ordu-kredituen sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) eta UPV/EHUk sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu-kredituen sistema ezarri** zen (2005eko abenduaren 25eko EHAA (239. zk.), I. kapitulua).

Horren arabera, 2026ko urrian ikastaroa hasi ez dutenek **ordu-kreditu positiboa** izan behar dute otsailean eskolaratzeko.

Ordu-kreditua IVAPek egiaztatzen du. Hortaz, deialdi honetako behin betiko zerrendetan aldaketak gerta daitezke ordu-kredituen sistemaren ondorioz. Izan ere, **IVAPek, gerora, baztertu egingo ditu saldo positiborik ez duten langileak.**

3. Bete beharreko baldintzak

Deialdian parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

3.1. EHUko Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (TEKAZEL) taldeko kidea izatea (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean, aldi baterako lan-kontratua duen langilea lanpostu hutsean edo langile egonkorra).

3.2. Salbuespenak:

3.2.1. Onartuak izateko aukera izango dute ordezkapen sindikala egiten ari diren bitarteko funtzionarioek, betiere bi urte baino gehiago badaramatzate egoera horretan.

3.2.2. Onartuak izateko aukera izango dute ordezkapena egiten ari diren bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langile laboralak ere, betiere langile horiek 3 urteko zerbitzuak badituzte EHUn. Bestalde, beharrezkoa izango da lan-kontratuak indarrean jarraitzea liberazioa hasten den momentuan. Liberazioa kontratuaren edo izendapenaren iraupenaren menpe egongo da.

3.3. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edo baliokidea den agiririk ez izatea.

4. Aurreko deialdietan parte hartu duten langileak

- 2025/2026 ikasturteko bigarren lauhilekoan 5 orduko liberazioa izan duten eskatzaileei liberazioa onartzeko kontuan hartuko da aurreko deialdietan izan duten probetxua.
    - Liberazioa onartu ahal izango zaie % 100eko probetxua izan dutenei, hau da, % 90etik gorako bertaratzea izan eta egindako modulu guztiak gainditu dituztenei.
    - Baztertuak izango dira aipatutako aldi horretan modulu bat ere gainditu ez dutenak.

5. Eskaera

5.1. Eskaerak betetzean kontuan hartu beharrekoak

- 5 ordu/barnetegiko eskari berria edonork egin dezake baldintzak betetzen baditu. Baina 2 ordu lanorduetan edo 2 ordu lanorduz kanpo, **bakarrik eskatu ahal izango dute 2026/2027 ikasturteko lehenengo lauhilekoan 5 ordu edo barnetegiko moduluan daudenek**.
- Ezinbestekoa da Arduradunaren Txostena aurkeztea sinadura digitalarekin. **Arduradunak baimena ukatuz gero**, arrazoiak azaldu beharko ditu "Arduradunaren Txostena" dokumentuan.

5.2. Eskaerak aurkezteko epea

Eskariak aurkezteko epea **urriaren 29tik azaroaren 6ra artekoa** izango da. Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

- **Oharra**: eskariak egiteko azken eguna helduta arduradunaren baimenik lortu ez bada, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango da baimen hori.

5.3. Eskaerak non aurkeztu

Eskaerak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia betez aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: https://www.ehu.eus/eu/web/forms/shared/-/form/76640713

Eskatzaileak Arduradunaren Txostena EHUren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko du. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza (U02000384) aukeratuz, eta "Eskatzen du" atalean, "Euskara ikasteko liberazioak 2026-2027 (otsaila-ekaina)".

6. Lizentzia erabiltzeko betebeharrak

6.1. Kontratu-baldintzekin lotutakoak

Onuradunak euskara-ikastaroak dirauen bitartean EHUrekin lan-harremana izan behar du. Hortaz, liberazio-aldian bere kontratu-harremana deuseztatzen bada, onuradunak egoera horren berri eman beharko dio Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari (euskara-plangintza@ehu.eus), baja eman eta ordu-kredituaren zenbaketa geldiarazteko.

Onuraduna liberazio-aldian EHU barruan lanpostuz aldatzen bada, lanpostu berriko Arduradunaren Txostena helarazi beharko dio Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari (euskara-plangintza@ehu.eus) 10 eguneko epean.

6.2. Eskolen egutegia eta eskolarako huts egiteen erregistroa

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPek jartzen duen egutegia onartu behar dute, IVAPek antolatutako taldeetan baldin badaude (administrazioko taldeetan). IVAPek antolatutako taldeetatik kanpo baldin badaude, euskaltegiaren egutegiari jarraituko diote.

Hori horrela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegiko eskoletara huts egitea eragiten badio.

Huts-egite guztiak erregistratu egin beharko dira Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzan (euskara-plangintza@ehu.eus) deialdian onartuak direnei bidaliko zaien informazioan jasota egongo den bezala. Lizentziei eta baimenei buruzko arautegian kontuan hartzen diren asistentzia-faltak RODASen justifikatu beharko dira.

Hutsegiteak ez justifikatzea liberazio horietatik kanpo uzteko arrazoia izango da.

6.3. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba

Liberazio eta ikastaro hauetan onartuak diren langileek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko aldiro egiten diren probetara aurkeztu beharra izango dute, betiere ondoren aipatuko ditugun azpimailak egiten ari badira:

- B1B1 hizkuntza-eskakizunera aurkezteko, B1A2 edo B1B1 azpimailak egiten egotea.
- B2B2 hizkuntza-eskakizunera aurkezteko, B2B1 edo B2B2 azpimailak egiten egotea

Hala eta guztiz ere, B1B1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe eta puntu honetan aipaturiko urratsen bat egiten ari diren langileek B1B1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probara edo B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probara aurkezteko aukera izango dute.

- C1C1 hizkuntza-eskakizunera aurkezteko, C1C1 azpimaila egiten egotea.

Hala eta guztiz ere, bere lanpostuan B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe daukan langileak C1C1 azpimaila egiten ari bada, B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko egiten diren probetara derrigorrean aurkeztu beharra dauka.

Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

6.4. Lanpostuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea

Liberatuta dagoen pertsona batek lanpostuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen badu, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari (euskara-plangintza@ehu.eus) jakinarazi behar dio 10 eguneko epean. Horrelako kasuetan, liberazioa bertan behera utziko da edo, langileak jarraitzeko interesa agertuz gero, ikasturtea amaitu arte luzatu ahal izango da, arduradunaren baimena aurkeztuz gero.

7. Onartuen zerrendak

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira iragarki-oholean (EHU - Iragarki-ohol korporatibo Sistema: https://www.ehu.eus/eu/web/ehutaula/menua, baita "Euskara eta eleaniztasuna" webgunean ere: https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hizkuntza-prestakuntza/tekazelen-hizkuntza-prestakuntza/2-5-orduko-liberazioen-deialdi-osagarria.

Behin-behineko zerrendak azaroaren 9an argitaratuko dira eta interesdunek azaroaren 9tik 18ra izango dute erreklamazioak aurkezteko epea. Erreklamazioak deialdi honetako 5.3 puntuan azaldutako prozedurari jarraituz egingo dira.

Hutsak zuzentzeko, dokumentazioa gehitzeko eta erreklamazioak egiteko epea amaitu eta Euskalduntze Batzordean aztertu ondoren, **behin betiko zerrendak abenduaren 27tik aurrera argitaratuko dira** lehen aipatutako webgunean.